

Arratia txapeldunorde Bilbon jokatuak BBK Sariketako finalean

12. orrialdea

Atutxa II. eta Mugertza II.ak Urrezko Aizkora irabazi dabe

Atutxa eta Mugertzak lortu eben Urrezko Aizkorako binakako txapela, Etxeberria eta Larretxeari nagusituta. Norgehiagokea martiaren 30ean izan zan Azpeitian. Lehia sano bardinduta egon zan eta dimoztarrak eta bere Mugertzak 30 segundu baino ez eutseen atera bigarrenai. 10. orrialdea



Laburbirako film laburrak hilaren 4 eta 11n Areatza eta Igorren

12. orrialdea

TOKIKOM

begitu

arratia ubide zeberio

205

2014ko apirilaren 1a
hamabostekaria
www.begitu.org

Beharra topatzeko Enplegu Azoka

Herriko langabeziari aurre egiteko, eta Beharbide proiektuaren barruan, Enplegu Azoka antolatu eben Igorren martiaren 20an.

Herriko enpresak euren preminak edo etorkizunean izan daikiezanak beteteko lan-boltsak egiteko hirurogei lan eskeintza inguru aurkeztu ebezan. Publikorik ez zan faltau eta 700 curriculum baino gehiago jaso zituen azokan, eskeintza horreetara bideratzeko.

Beharra modu eraginkorren topatzeko be eskeiniko dira 2014an zehar tailerrak eta ikastaroak. Horreetarako izena emoteko aukerea egon

zan azokan, eta 80 lagunek emon eben izena. Arrakastarik handiena izan ebana, birkolokazino ikastaroa izan zan, 35 urtetik gorakoentzat.

Azoka honen hirugarren zutabea, berbaldiak izan ziran. Hiru eskeini zituen. Lehenengoa Batzek emon eban, bere lan eskeintza aurkeztuz; bigarrena, Beharbide proiektua kudeatzen dauan Aldalan konsultoriak, hizkuntzen garrantziaren gainekoa eta hirugarrenak beharra bilatzeko aholkuak emoten ebezan.

8. eta 9. orrialdeak



Kultur Etxean egin zan Enplegu Azokara hurreratutako batzuk.

AREATZA

Euskera Plana aurkeztutako jaia hilaren 11n

Zirku ikuskizuna, kantzak, jantzak, antzerkia, bideo emonaldia eta barauskarria egongo dira Areatzako euskerearen Ekintza Planaren aurkezpenean. Apirilaren 11n izango da, arrastiko zazpiretan Udal Areatoan, eta herria euskalduntzea helburu daukan plan honen nondik norakoak be emongo dira jakitera bertan. Plan hau 2014 eta 2017 bitartean garatuko da. 7. orrialdea



DIMA

Diru gehiago udal gestinorako 2014an

Zor zaharrak kenduta eta plan finantziero bat eginda, Dimako kontuak diru gehiago aurreikusten dabe 2014rako, % 10, hain zuzen be. Diru sarrera handiagoak izango dira eta diru gitxiago gastauko da interes eta amortazinoetan. Hori dala eta, eskolea handitzeko proiekturako diru partidea dago aurten.

Plan Ekonomiko Finanziario bat be egin dabe Diman, BFaren gastu erregelak bete ahal izateko. 5. orrialdea



LEMOA

Udalak zorra kendu dau

Lemoako Udalak hiru urteko ekitalditan, eukan 702.507 euroko zor estrukturala "gutziz kentzea" lortu eta 2013 urtea 213.037 euroko balantze positiboagaz amaitu ebala emon dau jakitera Bilduk. Gainera, zor hau gitxitzeko egindako ahaleginak ez dabela eragin negatiborik izan herritarrai eskeintzen jakiezan zerbitzuetan dinoe. Zorra kentzeako, seguru polizak birnegoziau eta ohiko gastuak kontrolau dabez, beste neurri batzuen artean. 5. orrialdea



IGTIE

ARRATIAN LAN ETA JAN

Hau da txoko honetan gure atzen artikulua, momentuz behintzat. Hamabost hilabete eta gero, 28 artikulua eta gero iritsi jaku txandea pasetako sasoi. Saiatu gara danetariko testuak idazten, eguneroko gaiak landuten eta memoriaren zirrikuetan nabigatzen, baita lortu be: ortugintza eta frutugintza, konsumo arduratsua eta azokak, eskola jantokiak eta ortu sozialak, munduko eta hurreko nekazarien burrukak, sasoi lanak eta errezeta goxoak, erlezaintza eta bioaniztasuna, eskubide aldarriak eta instituzioen itxieria salagarriak, agroekologiaren zergaitia eta norantzkoa,

agrotokikoak eta transgenikoak, frackinga eta amalurraren negarrak, asmakizunak eta bestelako kontakizunak...

Ezin ukatu gai piloa gelditu jakula saskian, baina ezin danai heldu. Ha ta guzti be, denpo-reari neurria hartzean ikasten gabizanez, helduko diranez heldu beharrekoak, guk lasai jasoko doguz eta zuek konpartiduko. Lan handia dago egiteko oindino, eta umorez ekingo deusagu bideari. Zuek alboan izango zaituegulakoan gagoz, hori da gure esperantzea.

Baserritik zelan bizi ikasten gagoz, eta gure herriaren elikadura

burujabetza antolatu guran. Sasoi gogorak ei datoz, paradigma aldaketak, gizarte eredu berrasmatu behar dogu danon artean, eta asmo horregaz gure hazia ereiten gabiz. Ez da erreza izango, baina ez jaku indarrak eta gogorik falta.

Amaitzeko, alkarlanerako gure prestutasuna adierazo gura deusuegu, eta gugaz batera kapitalaren merkadu hegemonikoa ezkerretik eta behetik iraultzera konbidau gura zaituegu. Mundua bestelakoa dalako da posible bestelako mundu bat. Bidean alkar ikusiko dogulakoan, animo eta laster arte.

www.igitie.wordpress.com
igitie.info@gmail.com



TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
S.O.S. DEIAK 112

Guardiako Farmaziak

09:00etatik 22:00etara

Martiazen 31tik apirilaren 6ra

Goikoetxea. Dima. Ugarana 33
Tel.: 94 673 70 54

22:00etatik 09:00etara

Aranburu-Guarrotxena. Amorebieta-Etxano.

Apirilaren 7tik 13ra

Traver. Bedia. J.A. Agirrerren enparantza z/g
Tel.: 94 631 39 50

22:00etatik 09:00etara

Guarrotxena. Amorebieta-Etxano.

Apirilaren 14tik 21era

Kortazar. Igorre. Agirre Lehendakaria 27
Tel.: 94 673 61 09

22:00etatik 09:00etara

Goiria-Montoya. Amorebieta-Etxano.
Zeberioak ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan**22:00etatik 09:00etara**

Chicote. Kareaga Goikoa 50. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89

Arte: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 631 56 30

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Arte: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

Parketxea

94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

Trenak

Euskotren 902 543 210

Bizkaibus* 902 222 265**Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**

Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara 30 minuturo, azkenengo 22:15ean Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30 minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean Galdakaoraino.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era 30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Otxandiotik urteerak:

Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan, Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Arte-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 15:30 eta 20:00.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Artea

Lanegunetan: 05:45, 14:15 eta 18:45.

Zapatuetan ez dago 05:45ekoa.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

Zeberio-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 09:15, 11:15, 13:15 eta 17:45.

Jaiegunetan (Arrigorriagaraino): 08:15, 11:15, 14:15, 17:15 eta 20:15.

Bilbo-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan: 08:15, 10:15, 12:15 eta 16:45ean.

Jaiegunetan (Arrigorriagaraino): 10:40, 13:40, 16:40 eta 19:40ean.

La Union* 94 427 11 11**Bilbo-Gasteiz**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan dau eta Otxandiokoak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau eta Otxandiokoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta Otxandiokoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandiokoak 10:30ean urtetan dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan dau Gasteizetik. Otxandiokorik ez dago.



Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.

Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

Telefonoa: 94 631 73 14.

Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com

Webgunea: www.begitu.org

Zuzendaria: Iñigo Iruarrizaga

Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

Erredakzino taldea: Ainhoa Duñabeitia eta Irati Urien.

Maketazinoa: Iñigo Iruarrizaga.

Publizidatea: Iñigo Iruarrizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

Banaketea: Marta Rodriguez, Pablo Rodriguez eta Rut Rodriguez (Lemoa eta Bedia), Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas eta Xabier Mendieta (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte (Dima), Azibar Sagarna eta Iraitz Sagarna (Igorre) eta Ainhoa Mendia eta Irati Urien (Arantzazu, Artea eta Ubide).

Tiradea: 6.800 ale.

Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

Ale kopurua 6.800 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

Babesleak:

Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
diruz lagundutakoa



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura



ZEURE BERBEA

Errausketearen kontra Lemoan

Cementos Lemoa enpresek 10 urte baino gehiago daroaz hondakinak erretzen (plastikoak, pneumatikoak, animalia urunak...) Honek guztiak ingurunean eta osasunean ondori larriak sortzean dituala jabetuta, Lemoan Errausketarik Ez Plataformea sortu zan.

Informazio ugari topatu daiteke honen inguruan, baina benetan hor gertatzen danaren barri izatea gaxa da. Cementos Lemoan, Eusko Jaurilaritzak ipinitako mugak beteten dituan arren, honek ez dau esan gura isuri honek ez dabela gure osasuna eta ingurumena kaltetuten.

Hondakin honek erreteak gitxi batzuen patrikan bakarrik dauka onura, eta askoren osasunean kaltea. Beraz, hondakinen kudeaketarako, erraustegi eta zabortegeiz gainera, beste eredu batzuen beharra ikusten dogu.

Herritarren erantzuna beharrezkoa da arazo honeri aurre egiteko, izan be, hau ez da Lemoako arazoa bakarrik; bera inguratzen daben herrietara be zabaltzen da, ondorio kaltegarrienak eta zuzenak, 10 kilometrorra hedatuz.

Lemoan Errausketarik Ez plataformak hainbat ekimen egin ditu, berbaldiak, informazio kanpainak eta orain sinadura bilketea ipiniko dogu martxan.

Arrazoi honeengaitik, beharrezkoa da herritar guztien parte hartzea, 15 egunetik behin, batzarrak egiten doguz Lemoako Kultur Gunean. Zure inguruan zer gertatzen dan jakitea be interesgarria dalako, Erdu!

LEMOAN ERRAUSKETARIK EZ
PLATAFORMEA

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kezak, eskerronak, hausnarketak, burutazioak edota ideiak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleai zuen ikuspuntuak helarazoteko. Argitaratzeko derri gorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz.

Hauxe dozu helbidea:
Zertu Kultur Elkartea
BEGITU aldizkaria
Herriko Plaza 24
48.142 Artea

Edo, helbide elektronikoa honetara bialdu zure gutunak:
begitu@topagunea.com

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkartea. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Sano (sano gozo)



Berba baten ezaugarria edo maila indartu edo zehaztuteko aurretik doan adberbio graduatzailea da; "oso", "asko" edo Arratian sarri entzuten dogun "sano" (sáno, agoskatuta). Esate baterako: "Sano gozo egon ziran jan genduzan tartak!". Sano berbeak (adjetibo moduan, sáno agoskatuta) beste esangura honek be baditu: 1- persona osasuntsua edo indartsua; 2- persona zintzoa; eta 3- burutik ondo dabilen laguna.

ERETXIA

Ur Baso Baten Alde!



ROCIO ALONSO ROCAFORT

InAurora proiektuaren
koordinatzailea

Gure mundu honetan, 7.200 milioe biztanletik 1.000 milioe inguruk ez dauka edateko urik eta 2.600 milioe ez dau saneamentu zerbitzu egokirik, Nazino Batuen Erakundearen arabera. Ur eta saneamentu zerbitzu eskasak osasun arazoak dakarrez eta pobrezia, desperekotasunaren nahiz injustizia sozialaren jatorria dagoz.

Lurra eta honen baliabide naturalak herrien nortasuna, erlazino sozialak, biziraupen estrategiak eta ongizate ekonomikoak tajutu eta bermatzeko funtsezko elementuak dira. Gaur egun, baliabide hidrikoen konserbazioa eta jasangarritasuna lortzea da aurrean daukagun erronka nagusietako bat. Izan be, edateko ura multinazionalak metatu eta kudeatu gura daben aberastasun iturri preziaua bihurtzen dabiz.

Testuinguru konpleju honetan, urak, oinarrizko baliabidea dan heinean, danon eskura egon behar dau. Horregaitik, 2010. urtean edateko ura eta saneamentua Giza Eskubide gisa aitortzeak berebiziko garrantzia izan eban, eskubide hau modu esplizituan aitortuz baliabide hidrikoentzat marko juridikoa ezartzen da eta. Bestalde, 2012an, mundu mailan lurra eta baliabide hidrikoak abiadura bizian esku gitxitan metatzen dagozala arduraz ikusita, Elikadura eta Nekazaritzarako Nazino Batuen Erakundeak (FAO) "Lurraren, Arrantzaren eta Basoen Edukitzean Gobernantza Arduratsuen inguruko Borondatezko Irizpideak" sortu zituan, gizatalde sozial ahulenak baliabide naturalak eskuratzeko daukien eskubide indibiduala eta kolektiboa errespetetako, babesteko eta bermatzeko nazinoarteko marko juridikoa zabalduz.

Hau danau oinarritzat hartuta, Euskal Tokiko Erakunde Lan-kideak biltzean dituan Euskal Fondoak alkarrekin uraren lorpena

dauka bere lehentasun nagusien artean. Alkarrekin tokian tokiko ki-deakaz batera lankidetzaren deszentralizazioa dihardu, biztanleriaren bizi-baldintzak hobetzeko intenzioaz. Modu berean, ura eta saneamentua oinarri dituan Giza Eskubide honen defentsa genero ikuspegi batetik landuten da, ekintzak Guatemala, Nikaragua, El Salvador, Kuba eta Mendebaldeko Saharako gizatalde zaurgarriengan konzentrauz.

Igaztik, InAurora izeneko komunikazio integralerako proiektuaren bitartez, Euskal Fondoak genero-desperekotasunen inguruko konzientiaziozko partaidetza kanpainetan egiten dau behar, Euskal Herrian nahiz bere eskuhartze eremuetan. Aurten, aste gitxi barru abiatuko dogun *For a Glass of Water* kanpainearen bitartez, baliabide naturalak eta batez be ur trataduak daukien garrantzia hedatu gura dogu, andrak ur gabeziaren ondorioz dituen arazoak eta zailtasunak azalera-tuz. Andrak, uraren eguneroko kudeaketan eragile printzipalak izanagaitik, hau eskuratzeko trabak sufriduten dabez jeneralean.

For a Glass of Water ekimena ezagutzeko, Alex Txikonek eta Pablo Otxoak kanpaina honen pres-takuntza babestu gura izan eban eta base-jauzi bat egin eban Bizkaia Zubitik martiaren 19an. Aste gitxi barru abiatuko dogun kanpaina ikus-entzunezko partaidetza ekimen bihurtuko da. Bertan, guztion laguntzegaz, ekintza sinboliko bat egingo dogu: El Salvadoreraino baso bete ur heldu arazoko dogu, Pastora izeneko neskato salvadortarrak bere jabego bakarra dan arbola ureztatu dagian. Kanpainearen gaineko informazio guztia www.inaurora.org proiektuaren webgunean topatu daitezue.

Mundu hobe baten alde; inguruneagazko errespetuzko erlazinoaren alde. Andrak baliabide hidrikoen kudeaketan aldaketa eragileak garala tinko sinetsita, ekin deiogun alkarlanari.

Ur Baso Baten Alde!

LUMATUTEN



MAITE ARTABE

Maitiak galde egin zautan...

Berba egin dona Asunegaz ulea zuri itxearen kontu hori dala-ta? Asun ez dona ohiko intelektuala baina bai jakituna bizitzako kontuetan eta aditua entzuten eta alkarrizketan. Bizitzako zuri-baltzak biziz deskubridu jozana.

Ba berak esan jeustan atzo, nire ule erdi zuriak ikusita, ondorio honetara heldu dala: "edo hau krisi garaiako moda da edo edadeko androk beste iraultza baten sartuta gabiz". Eta holan azaltzen jona berak horretarako arrazoiak: "ardura lar androk eta tintearena be bada gero!".

Kokoteraino gagozana edertasunaren kanonaren pisuagaz eta ule zuria estali beharra beste pisu bat gehiago. Eta gauzak holan indar-aldiren baten uko egitea pentsetan joguna karga horri eta zuria zuri. Bizitzaren prozesua begi bistan ule zuriaren eta zahartzarorantza goazela erakustea eta ikustea erdi pomografiko gure jubenilismoaren gizartean. Alde horretatik, sinbolo arbuia garria zuria. "Kema behar da, baina badaukagu euki".

Kontrapunturako 2013ko martiaren hiruko Zazpikako artikulu bat aitatu gura jonat: "Beltza ederra da" jino-

nan tituluak, Senegaleko agendakar.com kultur webguneak burututako kanpaina baten bari emonez. Kartelean andra baltz-baltzaren irudia ageri zonan lelo honeguz: *black is so beautiful!* Kanpaina larua baltzaren aldamikapen moduan hasi zonan, ikusita Senegaleko andren % 67k azala zuritzeko kremak erabiltzen ebezala euren osasunaren kalterako izan arren. Itzela gero, batez be kontuan eukita Europan antzera gabizala morena egotearen, gehienok azal oso zurikoak izanda.

Ule zuria estali beharra bezain neko-soa azalaren kolorearen kontra egitearena; norbere kolorea onartu eta bisibilizetako ahaleginean be kokatu behar, antza, gure inguruko andra askoren zuriaren aldeko apostu hau. Desobedientzia kutsuren bat be bajekona apostu horrek; desobedientzia, kanonari. Eta desobedientzia-ekintzen bidez bakarrik parau litikona bat aske izatearen bidean.

Publizidadeari, modari eta sortzean jaurienan aurrerretxai gehiago egiteko kapaz banona neuk be ekingo jeustan bide horri. Aspaldian hasi nintzan morena egotetik paso egiten eta nire zurtasuna dignidadez eroan guran; jakina, kontradizino bat baino gehiagogaz, ze aitortu beharra jonat askotan erabili dodazala balzteko kremak-eta. la kontradizinoak sendotasun-iturri bihurtuten jatazan Almudena Hemandok dinoan erara, ze, orain zuriako bide honetan ulea be zurituten joatana. Ez dona erreza izango baina lortu ezker indartuta urtengo jonat pulso honetatik. Asunen esanetan neure buruaganako seguridadean irabaziko jonat eta libertadean, beinke! Libertadea ederra bezain gogorra badona be. Zazpikako argazkiko andra baltzaren ondoan andra azal-ule zuri bat ipini gura neunkena eta esaldia osotu: Baltza ederra da, zuria be ederra eta zuri-baltzak zer esanik ez.

ZERTZEAN



ALVARO RABELLI

Joxek ezin eban asmau eguna zelan amaituko zan. Edozelan be, egun horretan, zereginak beteten joan aurretik, Joxek lortu eban etxean zehar egoan hainbeste oztopenen artean leihoraino bidea egitea. Berau zabaldu eta egunak zer ekarriko eutsan ahalegindu zan barruntetan. Egun arrunta emoten eban, lar arrunta aukeran zerumugan ikusten ziran laino gorrikkengaitik ez balitz. Intera horretan kalatxori izuti bat igarozan Joxeren begien aurretik. Hori ikusita, Joxek bat-batean halango dardara bat sentidu eban bere barruan, ezin azalduzko bildur inozoa, beharbada aurrentipen bat. Joxek irakurria eban, edo beharbada telebistan ikusia, munduaren akabera heldu ezker, halango zantzuak nabaritu ziralaz; hau da, zeruan laino gorrikkak ikusiko

Apokalipsia orain

zirala eta kalatxori izuti bat begien aurretik igaroko zala. Joxek, arin baten, irratia biztu eban nonork zantzuoi azalpen arrazionalaren bat emongo eutsielakotan. Ez zan horrelangorik gertau, izan be, irratiak bat-batean ibiltari itxia eutsan eta laino moduko ke trinko bat etxearen jabe egin zan Jesus amen esan orduko. Munduaren akabera! Deidar egin eban Joxek. Zer, bestela, izango zan? Orduan, lar larritu barik, Joxe biziraupenerako prestetan hasi zan, umeak eta emazteak abandonatuko amaxea leku seguru batera eroan behar eban, kosta ala kosta. Horretarako, Joxek akorduan eukazan telebistan horrelango okasinoetarako emondako aholkuak. Orpo- orpo jarraitu eban. Lehengoz ardi-ulezko eskularru batzuk bilau eta hatz puntak moztu eutsiezan, ondoren Londreseko merkatu baten erositako vintage jakea jantzi eban, eta sama inguruan amaxearen zapi bat lotu eban. Ez zan nahikoa, eta alaba nagusiaren igeritokirako betaurrekoak be jan-

tzi eban, kloro usaina ikaragarri erien arren. Ondoren, lorategia garbitzeko erabili ohi eban prakak eskuratu eta aitaxe zanak oparitu eta sekula erabiliak ez eban arrantzarako gomazko botak bilau eban. Gauza gehiago falta jakozan, zorro bat esaterako, semearenak, eskolara liburuak eroateko baliatzen ebanak, balioko eutsan; eta kapela bat, edota burua estaltzeko edozein gauza, egongelako mahaiaren zamauaz egingo eban bat; eta armak jakina, nora joango zan arma barik, emazteak trikotatzeko erabili izan eban orratzak nahiko izango ziran. Ekipo horregaz baegoan prestanta gerrilla post-apokaliptiko baten parte hartzeako. Orain jatekoak eta leku seguru bat bilatzea baino ez jakon falta. Familia osoa batu eta hara eroango eban. Horretara joan instatean, emazte ohia agertu eta kea eriola egoan irratia zaharra desentxufau eban – Joxe! joan nazenetik etxe hau desastre hutsa da, amarentzako pixa-ohialak erosi dozuz?

* Zertzean atalean argitaratuko doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera eredu ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUN argitaratu gura izan ezker, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak beginu@topagunea.com helbidean.

BEGI TXINDORRA

AKKB-ko lagun batek esaten dauan moduan: gu ez gara omenaldi zaleak, omenaldiak hildakoi egiten jakiezalako; gu ez gara dominazaleak, dominak militarrek ezartzen dabezalako; baina gu bagara lagunzaleak eta lagunak zaindu eta mimau behar dirala uste dogu. Hau dala eta, aurreko martiaren 15ean, Areatzako Hotelean egindako bazkari ederrean, Areatzako Kultur eta Kirol Batzordeko proiektuan lagun izan diren gure eskerra adierazo geuntsen. Honetarako, AKKB Lagun Sariak sortu doguz eta argazkian daukazuez gure lehen sariak: gure zinefilo jakintsua dan Jose Angel, gure mendi gidari ausarta Martin Sagarna, gure esku lanetako artista Pili Aranburu, gure pelukera langile eta fina Rosana Pedrosa, gure edozertarako laguntzaile Jon Ordeñana eta gure mezenas eta gure bigarren etxearen zuzendaria dan Iker Mintegi. Beste asko falta ziran: Inaki Elepe, Txema Goikoetxea, Aitor Bergara, Juanjo Hidalgo, Idoia Kareaga, Lander Sagarna, Carlos Pelaz, Salba, Graficas Arratiako lagunak, Mus2ka, gure sukaldariak (Paxi, Txetxe, Josetxu, Jose Luis...), herri kiroletako laguntzaileak (Jaime Atxa, Naiara eta Nerea, Fernan...) Baten bat ahaztuko jaku (parkatu holan bada!!) baina doala hemetik gure esker ona eta besarkada be-roa danontzat!!

Asier Garcia



Gorosti Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel.: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostiscsl.com

agoa Ortodontzia
Implanteak
Estetika

Marina Urigoitia Aldekoa
Odontologia

Bidebarri 1. behea
48140 Igome-Bizkaia
T. 94 631 50 39
Kaleguz Zerbaitz 101
R.P.S. 21/06

FISIOTERAPIA Grupo Sasoibide
Balneario Areatza

Tania Fernandez Santiago
COL. 1718

www.gruposasoibide.com Tel.: 94 657 54 50

DIMA

Aurrekontuak eta plan finantziarioa onartu da

Igaz baino diru gehiago izango dau aurten Dimak udal gestinorako, aurrekontua 1.432.063 eurokoa da, 2013an baino % 10 gehiago. Kontuok orekatuta dagoz gastu eta diru sarrerai jagokienean. Igazko moduan, zergak % 5 igoko dira orokorrean, eta hobariak mantenduko dira egoera ekonomiko txarrean dagozantzat. Inbersinoetarako dirua % 227 igo da, eta eskolea handitzeko proiekturako dirua egongo da aurten. Aurrekontuok Bilduren aldeko botoakaz eta EAJ-PNVren kontrakoakaz onartu ziran martiaren 23an.

Erredakzioa

Aurreikuspenen arabera, diru sarreak igo egingo dira, zergetatik eta Udalkutxatik diru gehiago jasoko dalako eta amortizazio eta interesetan igaz baino 100.000 euro gixiago gastauko diralako. Gastuak be igo egiten dira, transferentzia aruntetako atala % 29 jeitsi arren. Inbersinoai jagokienean, eskolea handitzeaz gainera, diru partida bat be gorde da beste lan batzuetarako, diru-laguntzak osotuko dana; umeen zabuetarako; frontoiaren teilatua konpontzeko edota liburutegiko leihoak konpontzeko.

Herriko plaza oinezkoentzat eztabaidagai

EAJ-PNVk alegazio batzuk egin ebazan. Adostasuna lortu ez ebenen artean, plazea personentzat izatea izan zan, hau da, bertatik kotxeak ateratea. Proposamen horregaz funtsean ados dagozala esan eban alkateak, baina, Bilduren ustez, ez dala hori egiteko momentua. Koteentzako pasoa egon behar dala eta horrek obra handia eskatuko leukeala eta gainera herritarren partetik ez dala egon "eskari esanguratsurik".



Dimako plenko irudia.

Zerga eta tasak ordainduteko hobariak aztertzeke, eskatzailearen ondasunak kontuan hartuz; herritarren transmitudutakoari lehentasuna emotea, Eudelegaz koordinazioa, eta egonkortasun finantziarioa izan ziran jeltzaleak eskatutako beste puntu batzuk.

Plan Ekonomiko finantziarioa

2014ko aurrekontuan, "lehen aldiz atzen urteetan, ez dago kontabilizau bako fakturarik, ez ordaindu bako diruzaintza operaziorik, ez hartzeko-dunakaz zor zaharrik. Egoera honek aurrekontu ejekuzioan sarrera eta gastuen artean sortzean eban distorsino handia amaitu egin da" Rafa Ugalde Dimako alkatearen arabera.

Dana dala, zor zaharra kentzeako mailegu bat eskatu eban Dimako Udalak eta mailegua baimentzeko BFAk Doitze Plan bat eskatu eban. Dimako Udalak zor helburua ez dau betetzen eta Plan Ekonomiko-finantziario bat egin behar dabe gastu erregelearen helburua betetzeko. Plan hori aurkeztuta dago BFA eta onartuta.

2013 eta 2014ko urtail eta zezeilaren artean, bost mailegu amaitu edo amortizau ditue Diman eta mailegu bi geratzen jakiez.

LEMOA

Lemoako Udalak zorra kendu eta superabitagaz amaitu eban 2013a

EH Bilduk jakitera emon dauanaren arabera, Lemoako Udalak hiru urteko ekitalditan, eukan 702.507 euroko zor estrukturala "gutziz kentzea" lortu dau eta 2013 urtea 213.037 euroko balantze positiboagaz amaitu eban.

Erredakzioa

Udal kudeaketearen alor garrantzitsuenetako bat kudeaketa ekonomikoa izanda, pozik dagoz lortutakoagaz. "Bizi dogun egoera ekonomikoa kontuan hartuta erronka handia geukan aurretik zor hori murrizten joateko hobe-

kuntzak egiteari uko egin barik" dinoe Bildukoak. Gainera, zor hau gitxitzeke egindako ahaleginak ez dau "eragin negatiborik izan herritarrai eskeintzen jakiezan zerbitzuetan". Ondino gehiago, eskeitzen dituen zerbitzuak hobetu egin dabezala dinoe eta auzolanari emoten deusien garrantzia



Lemoako Udala.

BEDIA

Alfuseko beharginak FCC Ambitoaren Bartzelonako egoitzan protestan

Erredakzioa

Bediako Alfus FCCko hogeit bat behargin Bartzelonaraino joan ziran FCC Ambitoaren bulegoetara euren aldarrikapenak eroateko. Izan be, LABen arabera, bertan ostonduten da gatazkearen erantzuleetako bat. Ekintza honegaz beharginak esan gura deutsee erantzuleai ez ostonduteko eta Bediako Alfus bizirik mantendutearen alde egiteko. Beharginak erakundearen esku hartzea eskatuten dabe FCC Ambito Bediako lantegia saldu dagian eta proiektu barri bategaz lanpostuak mantentidu ahal izateko.

Orain urtebete, 16 lanpostu kendu eta lan baldintzak okertuten ebazan espedienteak aurkeztu eban enpreseak. "Konsulta epealdiaren ostean FCCko erantzule biak desagertu ziran eta benetako



Alfuseko beharginak.

negoziazioa egin ahal izateko kontuan hartu behar diran beharginen interpelazinoai, ez entzunaren egin eutseen" salatuten dau LAB sindikatuak.

Zortzi hilabete greban egin ostean, atzenengo hile bi honeetan greba amaitutea ebatzi eben, Bediako lantegia zarratu ez daiten burrukea beste modu baten egiteko. Izan be,

azpimarratu gura dabe.

Alkatearen soldatea jaitsi

Orain hiru urte Bilduk alkatezea lortu ebanean, alkatearen soldatea, zinegotzien dietak eta alderdi politikoak jasoten daben diru kopurua "nabarmen" murriztu eben eta aurreko gobernu taldeagaz "ohikoak" ziran hainbat gastugaz amaitu dabe.

Zorra guztiz kentzeke eta balantze positiboagaz amaituteko, Udalaren seguru poliza guztiak birnegoziau dabez, ohiko gastuak kontrolau eta aurreikusitakoak baino sarrera handiagoak lortu ditue beste gauza batzuen artean.

"Badakigu ondino sasoi gogorak daukaguzala aurretik, eta eguneroko lana guztiz beharrezkoa izango dala, orain arte bezala. Dana dala, argi daukagu eguneroko lanagaz, herritarren parte-hartzeagaz eta herritar guztion alkarlanagaz beste Lemoa bat eregiten jarraituko dogula" dino Bilduk.

lantegia bertan behera itxita dago. Larrialdietarako urtekerea soldauta dago, leihoak hormatuta, kamioien urtekerako atea ezin daiteke erabili... "Honek argi erakusten dau, FCC ez dauala Alfusen etorkizunaren aldeko apostua egiten" dinoe LABen.

Horregaitik, lantegia saltzea izan daitekela urtenbidea uste dabe bertako beharginak.

ARRATIA

Autobusak abortatzeko eskubidearen aldeko manifestazio nazionalerako

Erredakzioa

Arratiako andra taldeak eta talde feministak autobusa ipini dabe apirilaren 5ean Iruñean egingo dan abortatzeko eskubidearen aldeko manifestazio nazionalen parte hartzeako. Autobusa Lemoatik urtengo da 11:30ean, eta Igorre, Artea eta Areatatik pasauko da. Zeinur 12:00etan hartu ahal izango da. Manifestazioa 17:30ean izango da eta Arratiara bueltetako autobusa 21:00etan.

"Aborto legearen erreforma gure kontrako eraso handia da. Barriro be abortoa klandestinidatean edo kanpoan egitera eroango gaitu" dino Idoia Ehizmendi Nokakoak.

Hori dala eta, Arratiako andra talde eta talde feministak deialdia luzaten deutsee arratiar guztiak, gizon zein andrai, "Iruñeako kaleak bete" eta Gallardonon erreforma geldituteko.

Autobusean joateko izena 656 784 982 telefonoan emon daiteke.

Abortatzeko eskubidearen aldeko mozinoa onartu dabe Diman

Bardintasun Mahaiak eta Andraizeak aurkeztutako abortatzeko eskubidearen aldeko mozinoa onartu

eben Diman, martiaren 23ko udalbatzan, Bilduren aldeko boto eta EAJ-PNVren abstentzioagaz.

Mozinoa, indarrean dagoan legea baino harago doa, haurdunaldia borronteaz etetea kode penetik ateratzeko eskatuz. "Logikoa da andren mobimentuak gauza horreek planteatea" esan eban lurdana Akasuso EAJ-PNVko zinegotziak, "baina 2010ean martxan ipini zan legea arriskuan dago eta hori bermatzea da lehentasuna, konsenso handia izan ebalako". Madrilen daukiezan ordezkariak, Gallardonon erreforma geldituteko egingo dabela lan be esan eban EAJ-PNVkoak.



ARANTZAZU

Lokala enpresa edo negozioak sortzeako



Erredakzioa

Arantzazukoak enpresa edo negozioen bat martxan ipini gura bada, udalak eleiza ondoan daukan lokala itxiko deutse, printzipioz urtebete, alokairua ordaindu barik. Holan, enpresa bat ipinteko hasierako gastuak ez dira izango hain handiak eta proiektu bat daukien errezago gauzatu ahal izango dabe.

Arantzazuko herritarrek edo herriak behar dauan negozioak lagunduko ditu udalak lokala itxiz. Eta ondino datarik egon ez arren, laster zabalduko dala proiektuak aurkezteko epea jakinarazo deutso BEGITORI Bego Llano Arantzazuko alkateak.

BEDIA

Incoesako beharginak Eusko Jaurlaritzaren egoitzaren aurrean

Erredakzioa

Enpresek aurkeztutako espedientearen konsulta epealdia akordio barik amaitu ostean, Incoesako beharginak Eusko Jaurlaritzako Enplegu Sailera bideratu ditue euren errebindikazioak. Egunero, goizeko 09:00etatik, 13:30era arte, Bilboko egoitzaren aurrean konzentrazioa egiten dabe Eusko Jaurlaritzak epaileari espedientearen arrazoen inguruko txostena bialdu arte.

Espedientearen konsulta epealdia amaitu zanean, ia 300 greba egunen ondoren, enpresa eta konkursoko administratzaileak, Bediako lan-zentroan ekoizpen unidatea mantendutearen aukerari behin betiko amaiera emon eutsien. Beharginak ez eben hau sinatu euren ustez enpresa bideragarria dalako. "Denpora guzti honetan zehar, frogatuta gelditu da, enpresa itxteko ebatzia, lekualdatzeak eta

enpresek hartutako beste ebatzi guztiak, ekoizpena deslokalizatu, eta euren erantzukizuna alde batera itxiz, ahalik eta merkeen ekoiztu ahal izateko estrategia baino ez dala izan" dinoe LABekoak.

Negarrako beharginak zain

Negarra enpresek aurkeztutako espedientearen konsulta epealdia be zarratu zan martiaren 20an. Beharginak enpresearen komunikazioaren zain dagozala jakinarazo deutso BEGITORI Alvaro Ruiz CCOO sindikatukoak.



ARRATIA

Hizkuntzak berbagai



Erredakzioa

Oraingo honetan, gure irakurleak zenbat hizkuntza dakien barri jakiteko asmotan, honako itaun hau sartu dogu www.begitu.org gure webgu-

nean. Gixienez bi dakiela danak ez daukagu dudarik, gaur egun euskaldun elebakarik ez dago eta. Itauna, beraz, hau da: Zenbat hizkuntza dakizu, oinarriko mailan behintzat? Eta erantzun posibleak:

- 1-. Bi.
- 2-. Hiru edo lau.
- 3-. Lau baino gehiago.

Behin edo behin eskiau dabe gure irakurleak

Aurreko hilabeteko inkesteari erantzun deusien irakurleen artean ez da egon eskiatzera inoz joan ez danik. Erdiak sarritan joaten dirala erantzun dau eta beste erdiak behin edo behin joan dirala.

IGORRE

Udabarri Jaia eta desfileak Kultur Etxean

Erredakzioa

Arratiako Merkatarien Elkartek Udabarri Jaia antolatu dau apirilaren 4rako. Bertan, aurtengo kolekzio

barriak erakusteko desfile bat egingo dabe edo bideo batzuk erakutsiko dabez genero barria erakusteko. Zozketa bat be egingo da hile honetan Igorreko komertzioetan erosketak egin eta jaiari parte hartzean dabenen artean. Horretarako, merkatariek hamaika sari emon dabez.

Jaia ez da amaituko Kultur Etxean, eta ondoren poteoa egingo dabe partaideak, trikitaliak lagunduta. Taldeka egingo dabe eta talde baktotxa

hiru tabernetara joan eta Txaparro tabernan batuko dira danak gero, beste zozketa batez, giro ederrean egunari amaiera emoteko.



Dia %
PEDRO
AUTOSERBITZU
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
Tel. 94 631 15 26

BIXER
TABERNA
Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARDO

Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea
Zornotza Tfnoa 649 86 95 36

Los Chopos
neurritza egindako armairuak
Arda, Los Chopos, 35 (Nagar) Tel.: 94 430 40 94
Esposizinoa eta
fabrika Lemoan
Pozueta poligonoa, Lemoa 94 631 34 44
www.armariosloschopos.com

Igorren
ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana
Lehendakari Agirre 23. behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

Pinturas Arratia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a 94-673-70-87
Igorre 48140 Bizkaia 609-79-49-54

A SESOREAK
basola Emaldi
FARMACIA ADMINISTRATZALEA
Abokatuak
620. 57.86.04
asierbasola@hotmail.com
Bilbao-Zeanuri

* KIRRU * ILEAPANDEGIA
SOLARIUM
Roberto eta Rosana
Sabino Arana, 38.bajo - 48140 IGORRE (Bizkaia)
94 631 92 00

GARANTXE
Autoeskola
TEORIA EUSKARAZ
ZEIN ERDARAZ
Baimonak: A1, A, B1, B
Lehendakari Agirre 31
Tfnoa: 94 631 71 32
48140 IGORRE (Bizkaia)
garantxe@evokah.net

AREATZA

Gure Esku Dagoren aurkezpena arrakastatsua izan zan Areatzan

Erredakzioa

Gure Esku Dago Areatza (GED) herri dinamikearen aurkezpena eta aldarria egiteko, antolatzaileen arabera, 120 persona inguru batu ziran, martiaren 23an, herriko frontoian. Ekitaldian, herriko lau pertsonak, GEDren zergaitia eta euskal herritarren ebazteko eskubidearen adierazpena irakurri eben eta bagilaren 8an Durangotik Iruñera egingo dan giza-katean parte hartzeako deia egin eben.

Martiaren 29an Bilbon egoteko konbitea be luzatu eben partaideak. Egun horretan, Arte Ederretako eta Casilla bitartean, giza-kate bat osotu

eben, Durango eta Iruñea batuko dauanaren entsegu moduan.

Metroak saltzean

Bagilaren 8ko giza-katea finantzietako, GED plataformak metroak ipinten ditu salgai. Areatzan be metro salmenta egin eben eta bagilaren 8an Arakilen egoteko 104 konpromiso jaso zituen. Plazan "giza-esku" bat osotu eben partaideak. Apirilaren 11n, maiatzaren 4an eta maiatzaren 25ean, arrastiko zazpi-retatik, zortzi t'erdia arte Areatzako plazan egongo dira metroak erosi, Areatzako adierazpena sinatu, kamisetak erosi edo autobusean apuntatu daiten jentea.



Giza-esku bat osotu eben Areatzan.

ARRATIA

Fracking-aren kontrako sinadurak jasoko dabez Areatzan

Erredakzioa

Areatza Kultur Kirol Batzordeak eta Igorre Bizirik-ek energiaren hilabetea antolatu dabe Areatzan. Hiru berbal-di eta dokumental batek jorratuko dabe gaia Areatzan eta Igorren. Fracking-a, energia barriztagariak eta Arratiatik pasauko dan goi-tensinoko linearen proiektua eztabaidatuko dira berbaldien ostean.

Fracking Ez Aiaraldea plataformako partaide batek emongo dau lehene-go berbaldia, hilaren 3an, Areatzan 19:00etan. Han, Fracking-a galarazoteko Herri Ekimen Legegilea aurrera ater daiten, sinadura bilketea egingo da.

Hilaren 10ean 19:00etan, barriz, Goiener, energia barriztagarrien kooperatibea ezagutzeko aukerea egongo da Igorreko Kultur Etxean eta hilaren 24an ordu berean, Urkuzuko txokoa (Igorre) goi-tensinoko linea-

ren proiektuaren nondik norakoak emongo dabez jakitera. Energiaren hile hau amaituteko *Oligopoly* dokumentala ikusteko aukerea egongo da Igorreko Kiñu Gaztetxean hilaren 30ean 19:30ean.



AREATZA

Ikuskizun handia Euskara Plana aurkezteko

Areatzako Euskera Batzordeak eta Areatzako Udalak euskerea bultzatzeko 2014-2017 Ekintza Plana aurkeztuko dabe apirilaren 11n, arrastiko 19:00etan Udal Aretan.

Erredakzioa

Aurkezpen jaia Miren Urrutxurtuk gidatuko dau eta bertan, Maider Yabarren ikuskizuna, Unai Santacolomaren gitarrak lagunduta Nerea Zuloagak abestutako kanta bi, herritar talde baten antzerki esketak, Itsaso Etxebarriak zuzendutako bideoaren emondia eta planaren aurkezpena egongo dira. Baita herriko tabernak emondako

mokautxoren bat jateko aukerea be. Ekintza Planaren nondik norakoak Yazmina Beobide eta Sara Gutierrezek emongo dabez.

Atzen urtean Areatzako Euskara Batzordeak herriko euskerearen egoera aztertu dau eta euskerea bultzatzeko premia ikusita, 2014-2017 urteetan garatuko dan Ekin-

tza Plana egin dau. "Aurkezpen jaian, plana aurkezteaz gainera, herriko jenteari Euskera Batzorde bat badagoala herrian eta atek zabalik daukazala jakin arazo gura deusagu" dino batzordeko partaide batek.

Ekintza Plan honen helburua herria euskalduntzea da.

ZEANURI

Zugatzetako etxeak inaugurau dabez

Erredakzioa

Europako "zugatzetan dagozan etxerik altuenak" inaugurau ebezan martiaren 28an Zeanuriko Zubizabala kanpian. Motzaille lau burdi be badagoz bertan ostatu hartzeako eta honeei zerbitzua emoteko baseri bat "Zuhaitz Etxeak" izeneko zentruan. Inaugurazinoan, Ubide, Zeanuri eta Areatzako alkateak, Gorbeialdeko gerentea eta Eusko Jaurlaritzako eta Bizkaiko Foru Aldundiko ordezkariak egon ziran.

Zugatz adarretan lau etxe dagoz zabalik honezker, bertan gaua emoteko eta horreekaz zabaldu deusie zerbitzua publikoari. Apurka-apurka, jentek eskatu ahala, gehiago zabaltzeko asmoa dabe. Izan be, arboletan hogetabi etxetxo ipinteko baimena daukie.



Zuhaitz Etxeak inaugurau dabez Zeanurin.

ENPLEGU AZOKA

Igorreko behar eskeintza ikusgai egon zan Enplegu Azokan

700-750 curriculum inguru jaso ebezan martiaren 20an Igorren egindako Enplegu Azokan Aldalan konsultoriakoak. Izan be, batz beste persona bakotxak lauzpabost curriculum itxi ebezan azokan. Beste 100 persona inguruk, curriculum itxi ez, baina lan eskeintzak ikusi eta intereseke eskeintzai argazkiak atera eutseezan. Enplegu tailerri jagokienean, 80 personak emon eben izena, eta interes handiena sortu ebana berkolokazino tailerra izan zan. Tailer hau, 35 urtetik gorakoai beharra topatzen lagunduteko eskeintzen da. Ekimen honeek guztiak Igorreko Udalaren Beharbidetako proiektuaren barruan dagoz eta Aldalan konsultoriak ipini ditu martxan.

Erredakzioa

Igorren 300 langabe inguru dagoz eta honeei beharra topatzen lagunduteko egin zan azoka hau. Azokea bera, beharra bilatzeko modu barri bat da, jakinmin handia sortu eban eta jente asko hurreratu zan bertara. Lan barik dagoan jentea, baina baita be eskualdeko zentro bateko orientatzailea, Sabadell bankuko behargin bat eta Zamudioko langabetuen alkarteko presidentea "euren udalak be holango bat egitea idea ona" zala eretxita, pasau ziran azokatik.

Azokan, Igorreko hainbat enpresak lan-boltsak eskeini ebezan paneletan eta hurreratu ziranak euren curriculumak ixteko aukerea euki eben lan-boltsa horreetan sartzeako. Horrezaz gainera, 2014an zehar egingo diran enplegu tailerretan izena

emoteko aukerea be egon zan, eta modu eraginkorrean enplegua topatzen laguntzeko hiru berbaldi egon ziran: "Batz", "Lana bilatzeko aholkuak" eta "Hizkuntzen garrantzia gaur egungo lan merkaduan: atzerrian lan egin" izenekoak. Goizean 35 urtetik gorakoak izan zirala nagusi eta arrastian jente gazte gehiago hurreratu zala dinoe antolatzaileak.

Beharbidetako proiektuko bigarren fasea

Igorreko Enplegu Azoka, Beharbidetako proiektuko ekimene bat izan da. Proiektu hau Aldalan konsultoriak gauzatzen dau eta ekintza honegaz bigarren fasean sartu da. Lehenengo fasean enpresetara hurreratu ziran Aldalanekoak, euren preminak jakiteko; hau da, zelango beharginak behar dabezan eta enplegu aukerarik dagoan jakiteko. Fase

Egoerea gogorra izan arren, Igorren zabaldu diran komertzio txikerrak gehiago dira zarratu diranak baino



Hainbat jente hurreratu zan Enplegu Azokara.

honetan Igorreko enpresen % 70ek hartu eben parte. Bigarren fasea, Enplegu Azoka honegaz hasi da eta tailerrak jarraituko dau.

Azokearen bentaja batzuk, enpresak hartu-emon zuzena eta enpresa txikerren bisibilizazioa da. "Jenteak ez dauz curriculumak komertzio eta enpresa txikerretara eroaten eta atzanean ez dakizu jenterik behar daben ala ez. Hemen panel baten ikusteak animau ahal dau jenteak curriculumak bialtzera" dino Beinat Anzola Igorreko alkateak.

Egoera ekonomikoa, beste leketan legez, gogorra dala Igorren be dino alkateak. EEEak be badagoz herrian, "eta komertzio txikiak eta dendariak estututen dagoz... baina komertzio txiki askorik ez da zarratu. Agoantetan dabe eta zabaldu be egin dira negozio barriak. Hori pozgarria da eta babes osoa daukie. Ez dira ibiliko garairik onenak biziten, baina badabiz. Gehiago dira zabaldu dabenak zarratu dabenak baino" dino alkateak.

Berbaldiak:
Batz multinazional bat behargin kalifikauen bila
Iñaki Polak eta Janire Lapresak,

Batz-eko Giza Baliabideetako teknikariak esan eben Batzen badagoala beharra, lanpostu teknikoetan eta ez hain teknikoetan, Igorren bertan edota mundu zabalean Batzek daukan beste lantegiren baten behar egiteko. Dana dala, Batzek bilatzen dauan perfila gatxa izaten dala topatzea esan eben, batez be robotika saillean lanpostuak beteteko.

Momentu honetan, Batzen hainbat lanpostu bete guran dabiz produkzioan, administrazioan eta produktu edo prozesu ingeniari beharretan. Energia arloan produktu-prozesu ingeniariak Estatu Batuetan edo Hego Afrikan egin beharko leuke behar denporaldi baten eta Txinako planta baterako be prozesu ingeniari baten bila dabiz.

Ingeniariak dira akaso espezializatorik handiena eskatzen daben lanpostuak, baina produkzioan lanpostuetarako be formakuntzea eskatzen dabe Batzen, Metal edo Delineazio arloko Lanbide Heziketa II, gehienetan. Behin beharretan hasita be, ikasten jarraitu behar dabe beharginak, enpresa honetako negozioa asko eta etenbarik aldatzen dalako. Hori dala eta, formakuntzea jasoten dabe be-



BATZekoak emondako berbaldia.

harginak Batzen.

Batz, kooperatibea da eta ez dabela Aldi Baterako Laneko Enpresarik (ABLE) erabilten esan eben Batzekoak. "Gaur egun, lanesku zuzena eta ez zuzena bereizten dogu. Lanesku zuzena bazkideak dira: hiru urtez behin-behinekoa izan eta gero, izan daitezke bazkide" prozesu baten ostean Batzeko beharginak. "Aukerak badagoz ikasteko gogoia daukan jentearentzat" ondorioztatu eben Batzekoak.

Hizkuntzen garrantzia gaur egungo lan merkaduan

Aldalaneko Lucia Alonsok ingelese eta, gitxienez, beste hizkuntza bat menperatzearen garrantziaz jardun eban arrastian Enplegu Azokan. Atzerrian lan egin izana be kontuan hartzean dabela

enpresak esan eban hizlariak.

Alonsoren ustez, badagoz hamar hizkuntza lagunduten dabenak beharra topatzen, eta lan arloaren arabera, bat edo bestea izan daiteke interesgarriagoa. Ingelesa ondo menperatu eta ingeniartzan behar egiteko alemana dala interesgarria; osasun arloan, frantsesa; eraikuntzan, portugesa... Txineraren garrantzia be azpimarratu eban, nahiz eta gurean jentea ez dan horretaz jabetu.

Atzerrian denporaldi bat biziteari be garrantzia emon eutsan Alonsok. "Enpresak nazioartekoak dira gero eta gehiago. Aztertu behar da atzerrian dagozan zein enpresatan egin ahal dauan bakoak lan".

Atzerrian zein herrian lana topetako LinkedIn sareak asko lagundu ahal dau Alonsoren erretxian.



Deiene Arrazuria eta Lucia Alonso Aldalanekoak.



Janire Lapresa eta Iñaki Pola BATZekoak.

Lana bilatzeko aholkuak

Aldalanekoak beharra modu eraginkor baten bilatzeko dekalago bat emon eben. Hemen eginbeharrekoak:

- 1- Lan merkadua aztertu.
- 2- Azterketa personala egin: norbere burua ebaluatu eta baloratu.
- 3- Lana bilatzea marketing prozesu bat da: zeure burua "saldu".
- 4- Helburu bat izan. Helburuak gidatuko ditu ekintzak eta.
- 5- CV erakargarria eta ona garatu.
- 6- Aurkezpen gutuna idatzi.
- 7- Bialdu zure CV-a ezagutzen eta interesatzen jatzuzan enpresa guztietara.
- 8- Mobilizatu zure lagun eta kontaktu guztiak. Akaso, lagundu ahal izango dabe edo lagundu ahal dauan baten bat ezagutu.
- 9- Prestatu test probak.
- 10- Planifikatu arretaz alkarrizketea.

**Herriko enpresak
lan-boltsak zabaldu
ditue eta behar bila
dagozanai jakinarazo
enplegu azokan**

www.alkizabal.net
alkizabal@alkizabal.net
Zabalik 07:00 - 19:00

ALKIZABAL

Eraikuntzarako makineriaren salmenta eta alokairua

BOLUNBURU POLIGONOA
Amorebieta-Lemoa bidea
Tel. 94 631 44 06. Faxe. 94 631 20 26
48330 Lemoa (Bizkai)

KÄRCHER
Banatzaile ofiziala

- Zuk behar duzuna daukagu, galdetu konpromiso gabe.
- Garraio zerbitzua.

MENDIA

Zeberiotik Untzueta gaztelura

Erredakzioa

Untzueta Nafar Gazteluak antolatuta, hilaren 6an, Untzetapikura abiatuko dira Zeberiotik hainbat lagun; Arakaldo, Orozko, Ugao eta Arrankudiaga-Zollotik dozenakaz bat egin, eta Untzueta gazteluaren mugariaren inaugurazioa egiteko. Tontorrean, nafar gaztelua egon zala bertan adierazoten dauan ikurra ipiniko dabe eta ekitaldia eta ospakizuna egingo ditue Untzetapikun. Ondoren,



herri bazkaria Arrankudiagako Gizarte Etxean.

Honen aurretik, martiaren 14an, 1512-2012 Nafarroa Bizirik ekimenaren barruan, "Untzueta gaztelua eta Nafarroako erresumaren konkista prozesuak" izeneko berbaldia emon eban Sergio Iribarrenek Zeberioko udaletxean. Gai honen inguruko beste hainbat berbaldi egin ditue Untzeta mendiaren inguruko herrietan: Ugaon, Arrankudiaga-Zollon, Arakaldon eta Orozkon, hain zuzen be.

Antolatzaileak

Untzuetan gaztelu zahar baten azarnak dagozan arren, jente askok ez dauka horren barri. Horregaz kezkatuta, zenbait lagun alkartu eta memoria historikoa berreskuratzeko asmoagaz lanean hasi ziran, Untzueta Nafar Gaztelua sortuz. Untzueta mendiaren inguruko herri guztietako lagunak biltzean dira bertan. Talde hau Nafarroa Bizirik taldeagaz ipini zan hartu-emonetan eta berbaldiak eta apirilaren 6ko martxea antolatu dabe.

FUTBOLA

Andrazkoak atzen partidu biak irabazi dabez

Ainhoa Duñabeitia

Andrazkoak marxa ezin hobean dabil. Atzen norgehiagoka biak irabazi dabez. Martiaren 23an etxean jokatu eben, Arratia 2 Aurrera Vitoria B 1. Hurrengo astegoienean, martiaren 30ean, Bizkerre izan eben aurkari etxetik kanpo neska. Gol bi egin ebezan gureak, Bizkerre 0 Arratia 2.

Gizonezkoetan bariz, lehenengo taldeak, azken norgehiagoka bietan partidu bat irabazi dau. Etxean jokatu eben martiaren 22an Otxarkoagaren kontra; Arratia 2 Otxarkoaga 0. Hurrengo astegoienean, martiaren 29an, San Pedroren aurka jokatu eben, bi eta huts galduz. Hurrengo jardunaldian Mungia izango dabe bisitari.

Bigarren taldeak, bariz, partidu bakarra jokatu dau. SD Amorebieta B izan eban aurkari martiaren 29an Urbietan. Markagailuko azken emoitzea, huts eta bikoa. Hurrengo neurketea etxetik kanpo izango dabe, Ermuako Anaitasuna IK FKEn aurka.

TXIRRINDULARITZEA

Oskar Garrok hiru domina Espainiako Txapelketan

Erredakzioa

Igorreko Oskar Garro egokitutako ziklismoko Espainiako Txapelketako podiumera hirutan igo zan martiaren 15 eta 16an. Bere taldeak urrea lortu eban abiadura eta brontzezko domina bi be lortu eban Garrok: Bata kilometro bateko neurketan; eta bestea, persekuzino modalidadean. Gainera, urtean-urtean bere marka personalak hobetuten ditu Oskar Garrok, bere helburuak betez.

Munduko Kopa maiatzean

Orain, Munduko Kopan parte hartzeako gogor entrenetan dabil igorretarra. "Igorreko Udala

eskertu gura dot, bertara joateko emon deustan laguntzeagaitik" dino ziklisteak. Maiatzaren 9tik 11ra bitartean izango da proba, Castiglione-n (Italia).



Garro argazkiaren erdian.

AIZKOREA

Atutxa eta Mugertzarentzat txapelak Binakako Urrezkoan

Irati Urien

Aitzol Atutxak eta Ugaitz Mugerzak irabazi dabe Binakako Urrezko lehiaketako finala. Etxebarria eta Larretxearen kontra lehiatu ziran martiaren 30ean, Azpeitiko Izarraitz frontoian. Atzenengo egurrean ebatzi zan garaipena, hogeta hamar segundugaitik irabazi eben Atutxa eta Mugertzak. Dimakoak adierazo dauenez, lar justu ibili ziran Ugaitz eta bera eta atzenerarte izerdia bota behar izan eben. Aitzol Atutxaren esanetan, "danok merezidu genduan txapela, baina txapel bi baino ez dagoz eta txapel bik buru bi baino ez dabez estaltzen". Dimoztarrak laugarrenez jokatu dau finala eta laugarren txapela ekarri dau Arratiara; Mugertza ostera hirugarrenez joan da eta oraingoan bai, irabazi egin dau. "Ugaitzek bi kale, hiruga-

rrenean bale egin dau eta nik nire eronkeagaz segiduten dot", dino umorez Atutxak. Behin binakako txapelketea amaituta, hilaren 5 eta 6an hasiko dan Banakako Urrezko Aizkora dator orain.

Hiru handien erakustaldia Axpe Goikoan

Trikitixa eta jantza artean aizkora erakustalditxo bat egin zan aurtengo txakolin barriaren aurkezpenean. Euskal Herriko lehenengoa, bigarrena eta hirugarrena; Bizkaiko Txapelduna dan Atutxa, Azurmendi Gipuzkoako txapelduna eta Nazabal Nafarroako txapelduna egon ziran.



www.begitu.org

publizitatea
94 631 73 14 eta 649 979 115



Gugaz harremanetan ipinteko
94 631 73 14 eta 649 979 112
begitu@topagunea.com

ZEKUTZE
JATETXEA

Sabino Arana, 24
48140 IGORRE - Bizkaia
Tel.: 94 631 52 83
zekutejantza@hotmail.com

umean meka

sema
0-16

Gogoratu leku barrian gagozala

Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE
Telefonoa: 94 631 82 94 • sema016@hotmail.com

AKITEGIA

GAY & LORA

IGORRE

AHOLKULARITZA:
LEGE-LAN ARLOAN

ZUZENBIDE

ZERGA ETA DERU KONTRATUAN
ONDASUN HIRIGIZENEN
ASIGURUELAN

Sabino Arana, 3-3. floor. Tel: 94 673 71 41 - Fax: 94 673 94 41 - 48140 IGORRE

BIZARGINAK

Ulea era klasiko eta modernoan ebagiten dogu

Bixarra egin eta txukunduten dogu

Ellexalde, 20 Rober ☎ 630 743 543
48.140 Igorre Manuel ☎ 661 848 793

axular
kultur elkartea

Agirre Lehendakaria 4 - 94 673 70 92
axularke@gmail.com

ekin s.l.
CONSTRUCCIONES

LAN PUBLIKOAK
INDUSKETAK
GARRAIOAK
UR SAREAK
SANEAMENTU SAREAK
BASERRI ETA BASOKO BIDEAK
PABELLOAK
URBANIZAZIOAK

Iturriotz barrena 8 • 48141 Dima (Bizkaia)
Tel.: 94 631 72 57 Faxa: 94 673 95 25
e-posta: obras@construccioneseekin.com

ARRATIA AUTOESKOLA
karneta eskuzko zain ondorez

Garbe, 10 - 48140 Igore (Bizkaia)
Telefonoa 94 631 36 31 Faxa 94 673 70 83
e-posta: unozaku@eskola.net

MENDIA

Alex Txikon Kangchenjungara

Erredakzinoa

Apirilaren 9an, Alex Txikon Katmandurantz abiatuko da Denis Urubko, Adam Bielecki, eta Artem Brown-egaz, Kangchenjungan (8.586 m) bide barri bat zabaltzeko.

Txikon lemoaztarak, Urubko Kazajistanekoak, Bielecki poloniarak eta Brown errusiarak osotuten daben espedizinoak mendi honen alderik gatxenetik,

iparraldetik, saiatuko dira tontorrera igoten.

Hirugarren mendirik altuena da hau Kangchenjunga eta sano mendi gatxa zabalik dagozan bideetatik be. Erronka handia beraz. Dana ondo joan ezker, bagilean bueltauko dira.

Ur Baso Baten Alde eta Herritmo

Gogor entreneteaz aparte, ez da geldirik geratzen Txikon. Izan

be, harrijasoten eta aizkoran ibilizan martiaren 30ean, Oreretan, *Herritmo* ikuskizunean. *Herritmo* Oreka Tx, Kukai eta Kalakan taldeen ikuskizuna da eta bertan jantzea eta musikea herri kiro-lakaz nahasten da.

InAurora plataformearen Ur Baso Baten Alde kanpaineagaz be bat egin dau Txikonek. Hau dala eta, martiaren 19an, base jauzia egin eban Portugaleteko zubitik.



Pastora izeneko neskato salvadortarra.



UDABERRI JAIA

2014/04/04

Igorreko dendetako kolekzio berrien
DESFILEA Lasarte Aretan 17:30etan

Bertaratu ezker, **ZOZKETA** itzelak!!!

Eta ondoren... **TRIKI-POTEOA** eta
SARI GEHIAGO!!!



IGORREN EROSI

Oparitu BEGITU-lagun!

* Deitu 649 979 115 telefonora

Egizu zure laguna BEGITUREN harpidedun eta otzara bete kultura oparituko deutzazu.

- 6 liburu: Arratia Inguruko Hiztegia, Ortozik, Ametz, Peru Tximaluze, Haizea aurpegian eta Arratia aldeko kanta eta bertso zaharrak.
- Arratia, Ubide eta Zeberiko argazki zaharren postal bildumea
- Luis Iruarizaga Abesbatzaren 25. urtemugako CDA

35€, 55€ edo 75 Euroren truke

HAU DANAU JASOKO DAU BEGITU-LAGUN BARRIAK OPARI DOTORE HAU EGIN EZKERO



HERRIKO BENTA
HOSTAL
HERRERO PLAZA
48142 ARTEA (GORKA)
Tel. 94 631 72 56



ASESORIA Gorbeialde
Juridikoa · Fiskala · Lanekoa · Kontularitza
Askatasun 28, 1B 48143 Areatza
Tfnoa: 94 673 92 93 Faxa: 94 673 92 82
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com



begitu
amata ubide zeberio



Okindegia
+ Ke... PAN
Etxean bertan egindako pastelak



IGORRE
Lehendakari Agirre 11
94 656 65 52

AREATZA
Golkokale
94 608 90 47

DISKOA

Ibon Ordoñez: "Arratian badaukagu kanterea"

Irati Urien

Punk, pop, rock... danetik gustetan jako eta danean ibilitakoa da Ibon Ordoñez. Musika herrikoa dauka begiko oster. Horretan dabil gaur egun, Kherau taldean. Esku artean bouzouki irlandarra, mandolina eta gitara akustikoa falta barik, bera da Kherauko abots nagusia. *Aukhera* izeneko diskoa atera barri dau taldeak; eta bertan, arratiarrak be euki dabe zer kantau. Honen guztiaren ginetik institutuan Biologia irakaslea da Ibon, eta bere agiriko ezaugarrietako bat dan umoreagaz hartu dau BEGITU, kontuak kontetako prest.

Zer da, nortzuk zarie Kherau?

Orain dala hamar urte inguru sortu zan proiektua da, baina kideok batu eta Kherau moduan daroa-



Diskoaren azala.

guzan urteak lau bat izango dira. Ikusten genduan jenteak askotan gehiago disfrutetan ebala beste herri batzuetako musikeagaz gure folkloreagaz baino; askotan, gure folklorea betiko tresna eta formulakaz egiten dala. Guk oster folklorea hori jorratuteko kapazidade handiagoa baegoala ikusi genduan. Bide hori hartu genduan orduan, eta hori da Kherau. Ez gara betiko tresnetan larregi finkatuten, abotsetan baino. Gero tresnak be badaukie euren papela, baina protagonismo barik. Hori da behintzat gure helburua.

Disko barrian arratiarren presentzia dago. Zer dala eta?

Bere momentuan Arratia Institutuan beharrean nengoala, laukote bat ezagutu neban: Iraia Inunziaga, Irati Urien, Ane Gorostiaga eta Naiara Zurinaga. Historia mintegian proiektu bat egoan non baseriz baserri hainbat kantu eta melodia batu ziran. AK37 zan proiektu polit hori, eta neu be bertan sartuta nengoan. Hantxe ezagutu nebazan ba, lau neskak. Sortu ziran kanten artean "Badakit zagozana" sano berezia zala iruditu jakun Kheraukooi, guztiz maitemindu ginan kantu horregaz. Geure disko barrian abesti horren bersino bat egitea erabagi genduan orduan,

baina eurekaz batera zelan ez. Honeetatik aparte Juantxu Rekalde, Mateo Pagazaurtundua, eta etorri ezin izan eban Angel Larrea irakasleak; zein institutuko ikasle ohi Garazi Santos, Paule Goikuria eta Asier Bustinzak be parte hartu eben diskoaren grabaketan.

Horrekaz danakaz Arratiako publikoak asegurata eukiko dozu.

Bai. Arratian badaukagu kanterea. Nik betidanik esan dot, sano pozik nagoalako nabil institutu honetan beharrean. Salbuespenak salbuespen klaro, txoriburu bat beti topetan dozu eta. Ondino diskoa ofizialki kaleratu barik dago, estraperloz zabaltzen ari gara geu, eta harrera polita eukiten dabil.

Eta ostean, ze espektatiba daukaguz Aukhera diskoaz?

Diru aldetik ez dogu arrakastarik behar, eta gura be ez. Beste soldata batzuk daukaguz beste leku batzuetatik, hau militantzia kontu bat da. Eta benetan polita da jentea militantzia horretan sartzea. Kherau berez nahiko proiektu kolektiboa da.

Laster egingo dozu aurkezpena. Non eta gurean barriz.

Bai. Printzipioz Igorreko Lasarte Aretoan egiteko ahaleginduten gabiz. Ahal danik eta kolaboratzaile gehinakaz: AK37ko neskak, Lemoako Lander Zabala panderojolea, jantzari batzuk... Aurkezpen berezi eta polit bat izatea gura dogu, eta horretarako arratiarrak parte hartutea bertan.

LABURBIRA

Zazpi film labur hilaren 4an eta 11n Areatza eta Igorren

Erredakzioa

Zazpi film labur eskeiniko dira aurtien hamaikagarren urtez Laburbira film laburren zirkuituan. Urtero legez, Euskaltzaleen Topaguneak herriz herriko euskaltzaleen alkar-teakaz alkarlanean antolatzen dauan zirkuitua da, eta 2013 urtean euskeraz sortutako hainbat film labur azpimarragarri ezagutze-ko aukerea emongo dau.

Hile honetan Igorren egongo da filmok ikusteko aukerea apirilaren 11n arrastiko 20:00etan Lasarte Aretoan. Zertu Kultur Elkarteak antolatu eta Udalak lagundu ditu proiektuak. Areatza martiaren 28an egitekoa zan emonaldia apirilaren 4ra atzeratu



da. Emonaldia 19:00etan izango da Udal Aretoan.

Laburbiraren bidez Euskaltzaleen Topaguneak euskal sortzaileak egiten daben ikus-entzunezkoen ekoizpena Euskal Herrian bertan ezagutarazo gura dau eta horretarako herrietako aretoetara gerturazten ditu, bestela ikusteko gatzen diran formatu txikiko beharrak emonaldi baten batuz.

Zazpi film labur, aniztasuna

Emonaldiak ordu eta laurdeneko iraupena izango dau. Filmen aukeraketea egiterakoan, aintzat hartu dira beharren kalidadea eta gai zein generoen aniztasuna. Holan emonaldiak bildu ditu oso sarituak izan diran lanak, euskaltzaleen alkar baten babesean sortutako film bat, jaialdi eta zinemaldi desbardinetan estrenatuko lanak edo ikus-entzunezkoen Kameratoia rallyan irabazle izandako lana, besteak beste. Ondorengoak dira proiektuak diran film laburrak: *Abuztua* (Pello Gutierrez), *Aio* (Asier Sustaeta), *Euskaldun berriaren esketxa* (Kepa Errasti), *Irudi Mintzatuena Hiztegi Poetikoa* (Aitor Gametxo, Maider Fernandez, Maria Elorza), *Marilyn* (Iñaki Beraetxe), *Plaza bakarra* (Mediaworks 3.0), *Sormenaren bide ezutuak* (Lara Izagirre).

BERTSOLARITZEA



Lur Ziarrusta, Aitor Asua, Illart Gumuzio, Malen Amenabar, Irati Astondoa eta Jon Larrabide, Arratiako taldea osatu daben bertsolariak.

Arratia txapeldunorde BBK Bertsolari Gazteen Sariketan

Lea-Artibaik eroan eban txapela Bilboko Kafe Antzokian jokaturako finalean. Arratiak bigarren egin eban. Bigarren izateaz gainera, Arratia taldeko Malen Amenabarrek bizkai euskera egokienari saria jaso eban eta Lur Ziarrusta dimoztarrak finalera heldu dan bertsolari gazteenari saria.

Erredakzioa

Lea-Artibaik irabazi arren, alde handirik ez zala egon, eta pozik

urten zirala Bilboko finaletik dino Irati Astondoa bertsolariak.

Txapelketa hau maila bitan jokaturten da: 18 urte artekoa

eta 18 eta 25 bitartekoa. 18 urte artekoa, Lur Ziarrusta, Aitor Asua eta Jon Larrabidek osatu eben; 18 eta 25 bitartekoa, Ma-

len Amenabar, Irati Astondoa eta Illart Gumuziok.

Finala maila onekoa izan zan eta bertsoaldi politik egin ebezan gazteak.

Finalaurrekoa Igorren

Finalera sailkatzeko, Igorreko Lasarte Aretoan neurtu ziran Arratiakoak Busturialdearen kontra martiaren 25ean. 18 urte artekoan, gehiago izan ziran Busturialdekoak, baina Amenabarrek, Astondoak eta Gumuziok lortu eben alde kendu eta nagusitzea Kafe Antzokiko finalerako pasea lortuaz.

KULTUR HAMABOSTALDIA

Kultur hamabostaldia Arratia Institutuko ikasleentzat

Erredakzioa

Martiaren 31tik apirilaren 11ra arte, 25 ekintzatik gora izango dabe Institutuko ikasleak, Institutuan bertan eta Institututik kanpo, kultur hamabostaldiaren markoan. Berbaldiak, zinea, kirola, jantzialdiak, musika emonaldiak eta Bilbotik ibilaldiak, beste batzuen artean osotuten dabe hamabostaldi honetarako eskeintzea. Gaien aldetik be oparoz izango da eta biajeak, historia, natura, literatura, ikasketak, elikadura, LOMCE, kirolak eta sexualidadea landuko ditue.

Institutuan ikasleak grabatuko lip-dub-a ikusteko aukerea izango dabe, argazki lehiaketa bat eta Herri Oihua rap taldearen erakustaldia.

IKASBIDAIA

Ikasbidaia Turkian

Ane Lekue Goti

Tradizioak segidu behar dirala dinoe, eta gu ez gara gitxiago izan. Urtero egiten dan moduan Igorreko Institutuko 2. Batxillergoko ikasleak ikasbidaian joan gara, baina aurten Asiaraino heldu gara. Zezeilaren 23tik martiaren 2ra joan ginan eta Cappadociatik hasita autobusez Estambuleraino, lau hoteletan lo eginda, hainbat leku turistiko bisitetako asmoagaz. Kilometro asko eta denpora gitxian.

Zezeilaren 24ko goizaldeko ordu batean heldu ginan Kayseriko aireportura, eta autobusean beste ordu bete egin ostean hotelera heldu ginan, kantsauta baina lo egiteko gogo gitxigaz. Halanda be, lo egozanak goizeko bostetan itxartu ziran, leku guztietan egozan megafo-noetatik euren otoitza egiten hasten ziralako -bat baino gehiago sustau zan, zer pasetan zan jakin barik-.

Gau bi izan ziran hotel horretan, eta Cappadocia in-guruak ikusi eta gero, Pamukkalera hurbildu ginan, eta bertan algodoizko mendiak bisitatu genduzan. Izena kolore zurizko ur-jauzietatik jatorkie, eta bertako ur-ter-maletan sartzeako aukerea euki genduan -torpetxuren bat jausi be egin zan...-. Ostean, Kristo aurreko uri greko batetik ibili ginan, anfiteatro eta hondarren artean. Historiako irakaslea poz-pozik ibili zan bere saltsan.

Historiako klaseak amaituta kostaldera hurreratu ginan, Turkiako 'Benidorm'era. Ezin izan genduan gauza handirik egin, Estambulerako bidean paretako lekua besterik ez zan izan. Itsasoa urinetik ikusita, atzera autobusera eta hainbat ordu erlojuari begira pasau os-tean, Estambuleko trafikoaren artean gengoan.

Uria zeharkatuten genduan bitartean, danak ago za-balik argazkiak atera eta atera, ezin genduan sinistu ha hain handia zanik, etxe-ilarak ez euen akaburik. Behin hotelean gauzak itxita, inguruko kalean goitik behera ibili ginan, esploretako gogo itzelagaz.

Hurrungo goizean, guante, txapel, bufanda... erropa danak ondo lotuta Bosforoan zehar barkuz ibili ginan. Alde batera Asia, bestera Europa, eta bien artean Mar-mara itsasoa, begi bista itzela. Arrastia biribilduteko, neskak zapia edo izaratuak buruan ipinita, Estambu-leko argazki guztien protagonisteak dan Mesquita Ur-dinera sartu ginan, benetan ikusgarria. Ohiko turisten moduan danari argazkiak atera eta gero aurrez aurre



Institutuko ikasleak Turkian.

dagoan Santa Sofia be bisitatu genduan. Hemen ez genduan painelurik behar izan, kristauan basilikea izan ostean, mesquita izandakoa, orain museoa dalako. He-men be hainbat horma eta pintura gure kamaretan sartuta, prest gengoan Estambuleko gauba ezetuteko. Taksimera -diskoteka eta tabernaz betetako ingurura-heltzeako taxia hartu genduan. Sei persona eta bost eserleku, tetris apur bat egin eta listo! Hainbat barre egin ostean, eta konturatu baino lehenago, diskoteka (ez dakigu seguru diskotekea zanik...) baten agertu ginan.

Turismoa etxoten egoanez, goizeko zazpitan itxartu eta martxan gengoan atzera, Topkapi palazioa ikus-teko. Sultanaren egoitza izan zan hau hainbat men-detan, beretzat eta eukazan andra guztientzat, jakina: haren-a. Aurreko gaubagaz gure gogoia ez zan onena, baina arrastirako onena geldituten jakun, Bazaar Han-dia. Erregateorako prest eta hainbat erregalu erosteko beharagaz, ordu bi labur geratu jakuzan laberinto hor-retan. Zapatila, alfonbra, urre, katxinba, instrumentu... artean gure azken energiak gastautu, Turkian pasauko genduzan azken orduak zetan ibiliko ginan pentsau eta pentsau, nekeak irabazi eta gehienok lo geratu ginan.

Estambuleri agurka urrunduz ginan autobusez aire-portura bidean, maletak erregaluz beteta eta karterak hutsik... Hori bai, beti akordetako milaka argazki gure kamaretan!

AKKB

Arratiako ondarea ezagutzuz beraldi eta urtekera zikloa

Areatzako Kultur Kirol Batzordeak Arratiako ondarea ezagutzeko hiru beraldi beste horrenbeste urtekeragaz antolatu ditu.

Erredakzioa

Angel Larrea historialariak eskualdearen historiaren gaineko hiru beraldi emongo dauz eta beraldi bakotxak, txango praktiko bate-gaz loturea izango dau.

Lehenengo berbaldea apirilaren 10ean izango da eta beraldi honetan Arratiako aztarnarik zaharrenak aztertuko dauz historialariak: Axlora, Baltzola inguruak, San Kristobal... eta bertan topautako aztarnen barri emongo dau Larreak. Historiaurre eta Erdi Aroaren lehenengo partetik heldutako ondarea,

hain zuzen. Berbaldian aitatzen diran lekuak ezagutzeko txango didaktikoa, hilaren 13an, domekaz izango da. Interesatuak goizeko bederatzitik bertatik batuko dira Areatzako eleizaren portikuan eta autobusa egongo da lekuotara joateko.

Urtean zehar beste beraldi bi eta hareekaz lotutako txangoak be egongo dira. "Bigarrenen, Erdi Aroa eta Aro Modernoa landuko doguz eta hirugarrenean, barrokotik XX. mendera arte" azaldu deitso BEGITURI Angel Larrea irakasleak.



Baltzola.

DUNBA

Natura zaintzeko moduak

Dima-Ugarana Hiko 5. mailako ikasleak

Gure eskolan EA21 proiektua daukagu eta urtero-urtero natura zainduteko hainbat ekintza egiten doguz.

Urrietan, esaterako, Habitat Eguna ospatu genduan, naturaz gozatuz eta elikagai osasuntsuak janez hamaiketakoan, ikasturte osorako natureagazko konpromisoak zehaztu genduzan.

Beste egun baten Gaztaina Eguna ospatu genduan, gaztainak gure elikadura eta kultura ondarean izan dauan garrantziaz jabetuteko.

Birziklatzearen gaia be ikutu

dogu aurten, gorputz ohitura osasuntsuak geureganatzeko eta bedarren ezaugarriak ezagutzeko, olio birziklatuz, jabo tailer bat egin genduan. Maiatzean osasun bedarrak ezagutu eta ukendu eta krema tailer bat be egingo dogu.

Aste honetan olio zelan eta zergaitik birziklatzen dan ikasi dogu, "biokombustiblea" lortzeako. Olio lohia naturara bueltatzean zenbat kutsatzen dan eta naturari zelako kaltea egiten jakon aztertu dogu. Harritik olio bota ezker, geruza kutsakor bat gelditzen da eta natura lohitu egiten dogu. Guk olio birziklatzen badogu natura jagon egiten dogu, hau da, olio lohia plastikozko

botilak eta abar, kontenedore laranjara bota ezker. Olio hau lan-tegi batera eroango da eta bertan transformau eta biodiesela egingo dabe. Biodiesela hainbeste kutsatzen ez dauan gasolina al-

ternatiboa da.

Gure eskolan birziklatu egiten dogu: plastikoa, bidrioa, olio, organikoa, papela...

Birziklatzeaz gainera, natura zaindtean ahalegintzen gara eta



Ugarana Hiko 5. mailako ikasleak.



horretarako zugatzak be landatu genduzan gure basoak berreskuratzeko eta arnasten dogun airean oxigeno maila eta kalidade onekoa izan dagigun, Dimolagainen bertako zugatzak landatu genduzan: haretzak, pagoak, urkiak, lexarrak...

Personok naturaz baliatzen gara geure ongizatea lortzeako, natura zaindu! Zer gitxiago eskatu geure buruai. Igo gaitazan burdi honetara!

AGENDEA

APRILAK 2

BEDIA

17:00etatik 20:00etara, hilaren 11ra arte, jaietan pala eta frontenisean parte hartzeako izen emotea. Liburutegian.

LEMOA

16:30ean, Haur eta Gazteen Nazinoarteko Liburuaren Eguna ospatutako tailerak liburutegian.

APRILAK 3

AREATZA

19:00etan, "Fracking Ez" berbaldua Udal Aretoan. Igorre Bizirik eta AKKBk antolatuta.

APRILAK 4

AREATZA

18:00etan Euskal Jaia antolatzeko batzarra liburutegian.

19:00etan, Laburbira. Film laburren emonaldia Udal Aretoan. Zertu Kultur Elkarteak antolatuta udalaren laguntzeagaz.

21:00etan Disk Breakers The Quiet Corner tabernan.

DIMA

19:30ean, "Diman etxean gura doguz" errepresaliaduen aldeko kontzentrazioa plazan.

IGORRE

19:00etan Kultur Etxean Aritz Arizabalagaren *Paradisu zinemak* liburuaren aurkezpena.

17:30ean Udabari Jaia AMEK antolatuta.

LEMOA

18:30ean, Matxalen Legarreta: "Ekididean eta parekidetasunean oinarritutako jendarte ereduak". Jubiladu Etxeko goiko aretoan.

APRILAK 5

AREATZA

Parketxeak antolatuta, ibilbide botanikoa. Gorbeia inguruko landaredia ezagutzen. Gorka Menendezen eskutik.

ARRATIA

Autobusa Iruñeara Abortatzeko Eskubidearen Aldeko manifestaziora. 11:30ean Lemoan, 12:00etan Zeanurin. Tarteko herrietan be geratuko da.

BEDIA

18:00etan, erromeria plazan. Korru Dantza

taldeak antolatuta.

LEMOA

Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, sagardotegira urtekera. Zarateaitz (478 m).

APRILAK 6

AREATZA

08:00etan mendiko urtekera Altipitax (1.171 m) Eleiz portikuan. AKKBk antolatuta. Martin Sagarna gidari.

IGORRE

17:00etan, umeentzako zinea *Bram Barrabas*.

19:30ean *La gran belleza*.

ZEBERIO

09:30ean, Untzetapikura urtekera. 12:00etan, Untzeta mugariaren inaugurazioa. Untzeta Nafar Gazteluak antolatuta.

10:30ean plazan, frontoian eta aterpean Herri Kirol Jaia. BFAK antolatzen dauan Eskola Kirola programearen barruan. 14:30ean herri bazkaria. 15:30ean umeentzako puzgarriak. Gero txokolata.

APRILAK 7

AREATZA

Trapuzko Udabari Txapelketarako izena emoteko atzen eguna. Aitziber 657 715 732 edo lker 645 713 978. AKKBk antolatuta.

APRILAK 8

AREATZA

16:30etik 18:00etara, txobongilo erraldoiak manejetan ikasteko tailerra. Gazte Lekuan batu eta entsegua Karpoko lokaletan.

APRILAK 9

DIMA

17:30ean, Pello Añorga ipuin kontalaria "Zapatagomi" 8 urte baino gitiagoentzat.

APRILAK 10

AREATZA

19:00etan, Arratiako ondarea ezagutzuz trilogiaren lehenengo berbaldua, "Arratiako aztarnarik zaharrenak". Hizlaria: Angel Larrea historialaria. AKKBk antolatuta.

IGORRE

19:00etan, Goiener, energia barriztagarrien kooperatibea ezagutu. Kultur Etxean. Igorre Bizirik

MUSIKA
PAUSUZ PAUSU

Apirilak 5ean Igorreko kultur etxean
1. saioa 17:00etan / 2. saioa 19:00etan



Arratiako Musika Eskolako taller, prestakuntza eta koruko ikasleak eta Arratiako Musika Eskolako irakasleen orkestra.



Ipuin Musikatua Lasarte Aretoan

Aprilaren 5ean, Igorreko Lasarte Aretoan Arratiako Musika Eskolako txikerrenak ipuin musikatua eskeiniko dabe arrastiko 17:00etan eta 19:00etan.

Lau eta zazpi urte bitarteko 70 ume inguruk "Musikearen historia" kontauko dabe kantu, jantza edo perkusinoaren bitartez. Arratiako Musika Eskolako abesbatzak eta irakasleen orkestrak lagunduko deutsee kontakizun honetan.

Izaskun Arriaga musika eskolakoak azaldutakoaren arabera, orain zazpi bat urte antzeko kontakizun bat egin eben txikerrenak. Ipuin musikatu honen gidoia irakasleak egin dabe, kantu ezagunez osotua. Kantuon moldaketak Jesus Mari Bilbao Estefania "Jerry" k egin ditu eta bera da irakasleen orkestra zuzendaria.

eta AKKBk antolatuta.

19:00etan Igorreko Jai Batzordearen batzarra Kultur Etxean.

APRILAK 11

AREATZA

19:00etan, Euskera Planaren aurkezpena. Plazan.

21:00etan The romanticos (blues) The Quiet Corner tabernan.

DIMA

Gure Esku Dagoren proiektzioa.

IGORRE

19:30ean, Igorre Kantari kantu-pote jubiladuenetatik hasita.

20:00etan, Laburbira. Film laburren emonaldia Lasarte Aretoan. Zertu Kultur Elkarteak antolatuta udalaren laguntzeagaz.

ZEBERIO

18:00etan, Austari kulturak antolatuta, Jakin eta Jolas "Asmakuntzak salgai". Plazako ermita zaharreen.

APRILAK 12

AREATZA/ZEANURI

10:30ean, Areatza eta Zeanuriko Gazte Txokotik antolatuta, urtekera Hontza Extrem Obandioko abentura parkera, 12 eta 18 urte bitartekoentzat. Autobusa Areatzako parketik urtengo da eta Zeanurin be geratuko da.

IGORRE

22:00etan zinea *Agosto*.

APRILAK 13

AREATZA

09:30ean, Angel Larreagaz txango didaktikoa. Axlor, Baltzola, San Kristobal...

IGORRE

17:00etan, umeentzako zinea *Los cinco 2: el misterio de la joya escondida*. 19:30ean *Agosto*.

ZEBERIO

Austari Mendi Taldeak antolatuta, mendiko urtekera Aribulegi-Erroilbide-Irun (Aiako harria).

APRILAK 14

LEMOA

Aste Santuko oporrak. Hilaren 25era arte, ludotekea goizez zabalik 11:00etatik 14:00etara.

IRAGARKI LABURRAK

SALDU

SALGAI

Tabernarako kafeterea eta molinilloa salgai. Gaggia Nera markakoa. 600 eurotan. 619 728 188 (Unai).

PISUA SALGAI ZEANURIN

90 metro karratu ditu. Hiru logela. PVCko bentana barriak. Barrikuntzak behar dauz baina sartu daiteke biziten. 98.000 euro. Interesdunak deitu 618 557 363 telefonora.

AUTOA SALGAI

Daewoo Tacuma 5 atedun autoa salgai, 10 urte. 104.000 Km. ITVa urri lehenengora arte pasauta. Interesdunak 94 631 79 06 telefonora deitu (Iñigo).

HIZTEGI ENTZIKLOPEDIKOA

SALGAI

Lur Hiztegi Entziklopedikoko 10 tomo salgai, egoera onean, barriak legez. Interesdunak idatzi mezu bat e-mail honetara: l_laztana@hotmail.com.

EROSI

TRIKITIXEA EROSIKO NEUKE

Trikitixa esku soinua erosiko neuke. 653

716 691 (Jon Andoni) telefonora deitu.

DANERIK

INGELESEZKO ESKOLAK

Ingeleseko eskola partikularrik emoten dodaz Bedia eta Lemoan. Telefonoa 637 754 981.

TXAKURRENTZAKO LEKU BILA

Nire txakurrak eukiteko leku txiki bat topetan nabil Igorren (680 518 473).

TRASTELEKU BILA

Trasteleku bila nabil. Merkea, 30 euro inguru. Interesdunak deitu 656 742 768 (Bego) telefonora.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. begitu@topagunea.com-era. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *La gran belleza* filmarako.

Nekane Iragorri (Igorre)
Espe Kaltzada (Dima)



2 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Agosto* filmarako.

Sonia Ingunza (Areatza)
Laura Korta (Igorre)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz,

zozketetan

sartuko zara.

BEGITUK 11


urte eta

ehundaka

lagun.

DENPORA-PASA

IMAN OLATU




EZKERRETIK ESKOIERA


- 1.- Inontz. Ezeta. 2.- Garesti. Bokala.
- 3.- Birritan, Afrikako tanbor hotsa. Langile Abertzaleen Batzordea.
- 4.- Oinarrizko lau odol taldeetako bat. Damua. 5.- Arenal. Aluminioa.
- 6.- Modu, era. Dima udalerriko auzoa.
- 7.- Adiskidea. 8.- Bostehun erromatar. Ohar. 9.- Edabe garbi. Hegazti bat.

GOITIK BEHERA

- 1.- Letra bat. Nahigabetu.
- 2.- Amaiera. Konsonantea.
- 3.- Memoria, informatikan. Kakoa.
- 4.- Euskara zaharrea, txakur. Azpi, behe. Japoniako erdialdeko uria eta portua. 5.- Buruan daukagu. Enbudo.
- 6.- Bokala. Nahaste-borrastea.
- 7.- Nasaia, handia. Bike.



Topau zazpi hondamendi klase edo fenomeno natural.



AKMIKO

Igor Menika



Zugaltik **BEGITU**ten dogu
A.P.I. 495
www.inmobiliarialarrea.com
Lehendakari Agirre, 8 behea
48140 Igorre
Tfnoa: 94 631 80 04

bbk =

begitu
amata ubide zerbeto

Gure Ikastetxeak
Arratiako Herri Ikastetxeak 2 urteik 18ra. Euskalduna, kalitatekoa, herrikoa

- Arratia BHI**
Tel.: 94 673 62 37 Faxa: 94 673 62 37 Igorre
- Ikastola Arratia HI**
Tel.: 94 673 90 45 Faxa: 94 673 90 45 Artea
- Zubialde HI**
Tel.: 94 648 06 82 Faxa: 94 648 14 84 Zeberio
- I. Zubizarreta HI**
Tel.: 94 673 40 22 Faxa: 94 673 40 22 Igorre
- Areatzako Herri Eskola**
Tel.: 94 673 90 93 Faxa: 94 673 90 93 Areatza
- Zeanuri HI**
Tel.: 94 673 93 33 Faxa: 94 673 93 33 Zeanuri
- J.B. Eguskiza Meabe HI**
Tel.: 94 631 32 28 Faxa: 631 32 28 Lemoa
- Ugarana HI**
Tel.: 94 631 55 32 Faxa: 94 631 92 11 Dima

Mour hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrazko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoak, Hezkuntza zirkloak

arratiako instalazioak s.l.
Berokuntza - Iturgintza - Gasa
Aireztatzeko sistemak
Aire zurgatze zentralizatua
Suteak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak

Igorreko Industrialdea
Fab. D7
Tel. Fax. 94 673 62 76
Tel. 619 736 516
48140 Igorre Bizkaia

Bizkaifisios SLk
bi zentro ditu
Fisioterapia Zentroa Igorre
Elexalde 4
Telefonoa 94 631 55 08

Andra Mari Klinika
Fisioterapia Zentroa
Pontzi Zabala 1 Galdakao
Tel/faxa 94 457 23 64

www.bizkaifisios.com

JAVI DIEZ

"Sasoi baten inork ez eban gura fisioterapeuta izan"

Francisco Javier Diez Arrola Areatzara ezkondu zan 1979an eta harrezkerotik Arratian bizi da. Fisioterapeuta bokazinoz eta lanbidez, arratiaz askok sendatu ditue euren lesinoak -larriak edo ez hainbeste- bere jakintzari esker. Gurutzetako ospitalean 10 urtez, Basurton urte bitan eta Galdakaoko ospitalean gitxi gorabehera 15 urtez egin dau behar fisioterapeuta honek eta ia horrenbeste Igorren eta Galdakaon daukazan zentru pribaduetan.

Javier Diezen fisioterapia zentruak 25 urte daroaz Igorren eta bertan, 8 fisioterapeuta dagoz beharrean.

Erredakzioa**Zelan hasi zinan lan honetan? Sasoi haretan Fisioterapia, Erizaintzaren espezialidade bat zan. Nik lehenengotik Erizaintza ikasi neban eta gero Fisioterapiaren espezialdu nintzan. Orduan inork ez eban fisioterapeuta izan gura, fisioterapeutearen beharra oso gogorra dalako. Fabrika baten egin neban behar 14 urtetik 22 urtera arte eta gogorra zan, baina fisioterapeutearen beharra sano gogorra da.**

Leioara eroan eben, baina Fisioterapia Eskolea zarratu egin zan eta urte askoan zarratuta egon da.

Kanpoan be egon zinan ikasten. Bai. Galdakaoko ospitalea zabaldu zanean lehenengo lekualdatzea neurea izan zan. Eta Galdakaon beharrean nengoala Eusko Jaurlaritzaren beka batzuek atzerrira joan nintzan bospasei bider. Ordurako 30 urte baino gehiago eta seme-alaba bi neukazan eta sano gogorra egiten jatan han egotea. Batez be zapatudomeketan.

Formazino ikastaro piloa egin dot, master pilo bat. Danetik egiten dogu fisioterapia zentruetan. Gernu-inkontinenzia tratau dauan lehenengo fisioterapeutea naz eta gure zentrotan gizonezkoen zein andrazkoen gemu-inkontinenziarako terapia eskeintzen dogu. Baita fisioterapia tradizionala, hau da, traumatologia, neurologia, eta abar.

Esan leiteke fisioterapiak boom bat bizi dauala egun?

Bai, boom handia. Fisioterapeuta larregi dagoz. Eta eskaera handia be badago. Fisioterapeutea, masajista, osteopatea preminazkoak dirala dirudi. Eskolak be leku guztietan dagoz eta urtero fisio pilo batek amaitzen ditu ikasketak. Lan merkadua sa-

turetan dago eta ez dago beharrik hainbeste jenterentzat.

Familiako medikuak bialdu ahal dau gaisoa fisioterapeutaren?

Ez, ezin dau. Nik Osakidetzan behar egiten badot, pazienteak mediku errehabilitatzaileak bakarrik bialdu ahal deustaz.

Familiako medikuak aholkatu ahal deustu fisioterapia egitea, baina ezin dau bolanterik emon horretarako.

Pribadutik joan ezker, barriz, edozein joan daiteke...

Bai, bai pribadutik edonor etorri daiteke eta bide desbardinak dagoz horretarako. Etorri zaitezke eta esan, "Jabi, min daukat saman". Nik tratetan zaitut, zuk pagau eta listo. Edo etorri zaitezke aseguru bat daukazulako. Guk aseguru guztiakaz egiten dogu behar. Baina horretarako mediku baten aginduz etorri behar zara. Normalean mediku errehabilitatzaileak aginduta, baina ginekologoak, urologoak edo beste batek aginduta be izan daiteke, daukazu lesinoaren arabera.

Igorren zeintzuk dira gehien tratetan dozuzan lesinoak?

Danetik. Orain krisia dala eta, pazientek gitxiago daukaguz, baina lesino sano inportanteak tratau doguz, oso emoitza onakaz.

Hona jente asko etorri da. Herrian oso ezaguna dan andra bat etorri zan behin, aulki gurgildunean. Ate honetatik kabituten ez diran 3 seme daukaz eta laurak etorri ziran, "gure ama gaisorik dago" esanez. Arazo neurologiko larria diagnostikau eutsan Zarranz doktoreak eta horregaitik ezin zan oinez ibili. Zarranz doktoorea Euskadin gehien dakiana da eta harek esan ei eutsan ez zala barriro ibiliko. Hasi ginan tratamentuan, korrienteak eta emoten, eta hilabete eta erdira

Fisioterapia masajeak

baino gehiago da,

lesinoak osatuteko

beroa, laserra,

ultrasoinuak eta beste

bitarteko fisikoak

erabilten ditu



andrea ibiltzen hasi zan. Herri osoak jakin eban haren barri, telebistan agertu izan balitz legez. Eta gaur egun be ibiltzen segiduten dau.

Beste kasu inportante bat izan zan istripu larri bat izan eban neska gazte batena. Honen pronostikoa be sano txarto geratuko zala zan, eta ia % 100ean dago.

Dimako beste andra batek be istripua izan eban eta zazpi edo zortzi fraktura izan ebazan gorputz guztian. Hau be sano ondo geratu zan. Errehabilitazino hasi eta urte eta erdira ondo egoan.

Sano kasu politak euki dodaz.

Intrusismo handia dago lanbide honetan, ezta?

Bai eta pena handia emoten deusta jenteak holakoetan. Kasu bat kontauko deustut. Behin neska batek deitu eustan ordua hartzeako. Gela baten ohatila bi dagoz eta egun haretan, 80 urteko andra bateri egin behar neutsan tratamentua eta bestea hutsik egoan. Esandako orduan etorri zan neskea. Esan neutsan erropea kentzeako eta andrea tratamentua hartzean ondoko ohatilan etzateko. Ni gelatik kanpo joan nintzan. Bueltatu nintzanean, neskea narrugoritan egoan. "Zer zabiz?" Pregunta neutsan. "Esan deustazu erropea kentzeako", berak. "Bai, baina tratau beharreko zonakoa bakarrik". "Ba lehenengo masajistek narrutsik ipini arazoten eustan!" Joan nintzan barriro, erropak jantzi eiazan eta bueltatu nintzanean guztiz jantzita egoan. Aurreko masajistearen kon-

trako salaketea ipintzen joiala esan eustan.

Fisioterapia masajeak emotea baino gehiago da, ezta?

Bai. Masajeak ez dabe dana osatzen eta batzuetan kalte be egin ahal dabe. Fisioterapiak masajeak, mobilizazioak eta beste bitarteko fisikoak erabilten ditu: beroa, korrienteak, laserra, ultrasoinuak...

Beste pasadizo bat be kontauko deustut. Galdakaoko gure konsultatik hur, masajista batek egiten dau behar. Haren semeak istripu bat euki eban eta berak ez eban tratau, gurera ekarri eban. Horraino dana normal.

Zapatu goiz baten, Bilbora joan nintzan eta beragaz egin neban topo kafetegia baten. Hasi ginan berbetan eta esan eustan Bilbon be egiten ebala behar masajista moduan, baina "beharra diferentea zala". Itaundu neutsanean zertan zan diferentea "bikinia jantzita" egin behar ebala esan eustan.

Jenteak badaki zer osatu ahal dauan masajista batek eta zer fisioterapeuta batek?

Jenteak mina kentzea eta gitxitan etortea gura izaten dau. Fisioterapia Elkargo Ofiziala be badago eta haren ardura izan beharko litzateke mugak ipintea. Zer egin behar dauan bakoetak esatea eta intrusismo ez egotea bermatzea. Nire ondoan masajista bat ipintzen bada, ni saiatuko beharko naz berak baino hobeto egiten, jentea gurera etori daiten. Besterik ez. Jenteak gura dauana osatutea da.

GIZARTE INTEGRAZIOKO Goi Mailako Zikloa

AURREMATRIKULA EPEA
maiatzaren amaieran hasita

ORUE ESKOLA - San Miguel de Dudea, s/n - 48340 AMOREBIETA-ETXANO



Lan mundura hurbiltzeko ikastaro osagarriak eta proiektu praktikoak garatzeko aukera eskaintzen dogu!

Tel. 946 300 058

www.orueeskola.org

